



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko apirilaren 14a

29. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Nafarroako 2007ko kontu orokorreko buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasunen bat duten pertsonentzako sukaldaritza eskolak garatzeko eta hedatzeko plan bat aurkez dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuarekin lankidetzan jardun dezan nerabeen nahi gabeko haurdunaldiei eta sexu-transmisiozko gaixotasunei aurrea hartzeko kanpainan, zeina Osasun eta Kontsumo Ministerioak abiatu baitu. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri taxutu eta antola ditzan, irakasleen hasierako prestakuntza bat etortze aldera egungo nahiz etorkizuneko hezkuntza sistemaren eta gizartearen beharrezanekin eta erronkekin. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da batzorde bat sor dezan, giza baliabideen premiei buruzko azterlan bat eta itxaron zerrenden atzean dauden sakoneko arazoiei buruzko azterlan zehatza egin ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua, Industria Ministerioa eta Red Eléctrica Española enpresa premiatzen dira lehentasuna eman diezaioten Estellerrian azpiestazio elektriko bat jartzeari. Mozioa erretiratzea (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko aldaketak egin ditzan urtarriaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuan. Mozioa erretiratzea (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legezko ekintzak eta neurriak abian jar ditzan Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloan unibertsaltasuna, doakotasuna, kudeaketa eta Hezkuntza Departamentuaren finantzaketa bermatzeko. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

- Galdera, “Udal jabetzapeko ikastetxeetako obrak” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, “0tik 3 urtera bitarteko haurrak eskolatzeko udalekin izenpeturiko hitzarmenak” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, mendekotasun egoeraren aitortpenari eta Nafarroako Mendekotasun Agentziako ebaluatzaileei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik dagoen Nafarroa azken tokian mendekotasuna duten pertsonen balorazio kopuruari dagokionez. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, lupus gaixotasuna diagnostikatuta duten pertsonen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Nafarroako 2007ko kontu orokorreari buruzko Foru Legea.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2009ko apirilaren 2an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako 2007ko kontu orokorreari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Nafarroako 2007ko kontu orokorreari buruzko Foru Legea**

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrak prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezzen. Hori guztia, foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 110. artikulua Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakotan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru lege proiektuaren bidez, aipatutako

8/1988 Foru Legearen 115. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2007ko ekitaldiko kontu orokorreari buruz adierazitako izapideak, Comptos Ganberak emana du behar den irizpena eta izapidetua dago Nafarroako 2007ko kontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 156. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

**Artikulu bakarra.** Onetsi egin dira Nafarroako 2007ko kontu orokorrak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 113., 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Haien edukia ondoko agiri eta euskarrietan bildu da:

Paperezko argitalpena, Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuen atal adierazgarrienak laburbildurik dituen. Sozietate publikoen kontuen laburpena dakarren agiria ere erantsia dago.

Euskarri digital bat, entitate eta sozietate publikoen kontuak luze eta zabal jasotzen dituen, haien auditoriako txostenekin batera. Euskarri horretan sartuta daude, halaber, aurrekontuetako programen memoriak.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasunen bat duten pertsonentzako sukaldaritza eskolak garatzeko eta hedatzeko plan bat aurkez dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko apirilaren 2an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasunen bat duten pertsonentzako sukaldaritza eskolak garatzeko eta hedatzeko plan bat aurkez dezan." Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2009ko otsailaren 4ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasunen bat duten pertsonentzako sukaldaritza eskolak garatzeko eta hedatzeko plan bat aurkez dezan**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean aurkez

dezan ezgaitasunen bat duten pertsonentzako Enplegurako Prestakuntza Plan bat, sustatu eta bultzatuko duena pertsona horiek ezagutza profesional eta lanerako trebakuntza berriak eskura ditzaten, halako moduz non langile horiek lan aukera berriak izan ditzaten eta, aldi berean, gizartean hobeto integra daitezten.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du balia ditzan administrazio publikoekin zerikusia duten arloetan ezgaitasunen bat duten pertsonak enplegatu eta kontratazeko sortzen diren aukerak. Zehazki, Nafarroako Gobernua premiatzen da sei hilabeteko epean azterlan bat aurkez dezan, ezgaitasunen bat duten pertsonentzako sukaldaritza eskolak ezartzeari eta, ondorioz, gizarte jangela mantentzeari buruz.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bultza dezan enpleguaren arloan neurri sozialak sustatzeko beharrezkoak diren urratsak egiteko prest agertzen diren erakunde guztien arteko elkarlana, ezgaitasunen bat duten pertsonentzat etorkizunerako aukera berriak sortzea ahalbidetzeko, pertsona horiek gizartean erabat integratzea lortze aldera.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuarekin lankidetzan jardun dezan nerabeen nahi gabeko haurdunaldiei eta sexu-transmisiozko gaixotasunei aurrea hartzeko kanpainan, zeina Osasun eta Kontsumo Ministerioak abiatu baitu.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko apirilaren 2an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuarekin lankidetzan jardun dezan nerabeen nahi gabeko haurdunaldiei eta sexu-transmisiozko gaixotasunei aurrea hartzeko kanpainan, zeina Osasun eta Kontsumo Ministerioak abiatu baitu."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuarekin lankidetzan jardun dezan nerabeen nahi gabeko haurdunaldiei eta sexu-transmisiozko gaixotasunei aurrea hartzeko kanpainan, zeina Osasun eta Kontsumo Ministerioak abiatu baitu**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuarekin lankidetzan jardun dezan nerabeen nahi gabeko haurdunaldiei eta sexu-transmisiozko gaixotasunei aurrea hartzeko kanpainan, eta indar

ditzan antisorgailuen arloko zerbitzuen eta prestazioen politikak, nahi gabeko haurdunaldiei eta, horrenbestez, haurdunaldiak eteteari, aurre hartzeko sistema gisa. Eta, besteen artean, Osasun eta Kontsumo Ministerioak nerabeen nahi gabeko haurdunaldien kopurua murrizteko abian jarritako kanpaina sustatzen eta zabalitzen lagun dezan.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua, Osasun Departamentua, Hezkuntza Departamentua eta Familia, Gazteria eta Gizarte Gaietako Departamentua premiatzen ditu ahalik eta estrategia koordinatu gehien gara ditzaten Nafarroako gazteen eta nerabeen sexu-hezkuntzaren arloan, ondokoetan oinarrituta:

- Laguntza (profesionalen prestakuntza, irakasle eta ikasleentzako materialak) ikastetxeetan heziketa afektibo-sexualari buruzko programak abian jartzeko, haur hezkuntzatik hasita bigarren hezkuntza, batxilergo, lanbide heziketa eta unibertsitatera.

- Arlo horretan lan egiteko giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eta gazteentzako berariazko programa bat ezartzea gaur egun Emakumeari Laguntzeko Zentro deiturikoetan, gazteei sexu-eta ugalketa-osasunari buruzko arreta eskaintzeko.

- Gazteen gizarte-entitateentzako eta aisia eta denbora librearen, hiesaren eta beste zenbait arlotako gizarte-entitateentzako laguntza teknikoa eta ekonomikoa, gai hauekin zerikusia duten ekimenterako.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri taxutu eta antola ditzan, irakasleen hasierako prestakuntza bat etortze aldera egungo nahiz etorkizuneko hezkuntza sistemaren eta gizartearen beharrizanekin eta erronkekin.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko apirilaren 2an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri taxutu eta antola ditzan, irakasleen hasierako prestakuntza bat etortze aldera egungo nahiz etorkizuneko hezkuntza sistemaren eta gizartearen beharrizanekin eta erronkekin."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri taxutu eta antola ditzan, irakasleen hasierako prestakuntza bat etortze aldera egungo nahiz etorkizuneko hezkuntza sistemaren eta gizartearen beharrizanekin eta erronkekin**

1. Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxe-sare bat diseinatzea, Hezkuntza Departamentuarekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin koordinatuta, non arreta berezia emanen zaion karrera hasten duten irakasleen hasierako prestakuntzari eta laneratzeari. Maisu graduari eta irakasle masterrari dagozkie praktika egiten diren tokia izanen direnez, ikastetxeen zerrenda egiteko kontuan hartuko dira antolamenduaren kalitateari buruzko alderdiak, lankidetzari buruzkoak, konpromiso berritzailea, izaera inklusiboa eta aniztasuna aintzat hartzeari buruzkoak, emaitzen autoebaluazioa eta familien eta ingurukoaren parte-hartzea. Esperientzia gehiago eta gaitasun frogatua duten irakasleek eginkizun garrantzitsua izan dezakete irakasle berrien prestakuntzan, eta eginkizun hori pizgarrien bidez aitortu behar zaie, hala nola irakastorduen zama murriztea lan horietaz arduratzeko, unibertsitatea irakasleen prestakuntzan inplikatzeko eta merezimenduak aitortzea.

2. Beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea hasierako prestakuntzara sartzekoan eta gradu-ko eta graduondoko ikasketetan zehar, irakasleek, beren ikasketak amaitzean, C1 maila lor dezaten atzerriko hizkuntzetan. Lisboako helburuak eta Europako Parlamentuaren erabakiak behin eta berriro azpimarratzen dute beharrezkoa dela estatu kide guztietan irakasleek egiaztatzea gutxienez atzerriko hizkuntza bat dakitela, txiki-txikitatik atzerriko hizkuntzen ikaskuntza sendotze aldera.

3. Halaber, irakasleen hasierako prestakuntzan sartuko da pertsonen arteko harremanei arrakastaz aurre egiteko baliabide-estrategiei buruzko trebakuntza praktikoa: talde-esperientziak eta elkarlana, komunikazio-gaitasunak, emozioen kudeaketarako entrenamendu-teknikak, ikuspegi-aniztasunaren errespetua, testuinguru sozialaren azterketa eta irakaslearen autonomia profesionala.

4. Irakasleen prestakuntzan arreta berezia eskaintzea informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien irakaskuntzari. Teknologia berriek haurren eta nerabeen bizimodu naturalaren zati dira: aro digitalean jaiok dira eta irakasleek prest egon behar dute erronka horri aurre egiteko. Prestakuntzak errealitate sozial hori aintzat hartu behar du, teknologia berriak berrikuntzarako eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko aukera eta erronka izan daitezen.

5. Irakasleekiko errespetua eta begirunea eta haien estatusaren maila handitzeko neurriak ezartzea, besteak beste, honakoak: berariazko baldintzak ezartzea maisu gradua eta graduondokoa eskuratzeko edota irakasleen lanbidean sartzeko; ikastetxeek autonomia gehiago izatea; promozio horizontala eta tutoretzat egiteko pizgarriak, zuzendaritza-taldearen erantzukizuna eta ikasgelen berrikuntzak.

6. Hitzarmenak egitea Europar Batasuneko herrialdeetako ikastetxeekin eta Europako eta beste autonomia erkidego batzuetako ikastetxeekiko trukeko programetan parte-hartzea sustatu eta zabaltzea.

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da batzorde bat sor dezan, giza baliabideen premiei buruzko azterlan bat eta itxaron zerrenden atzean dauden sakoneko arrazoi-  
ei buruzko azterlan zehatza egin ditzan.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da batzorde bat sor dezan, giza baliabideen premiei buruzko azterlan bat eta itxaron zerrenden atzean dauden sakoneko arrazoi-  
ei buruzko azterlan zehatza egin ditzan".

Legebiltzarrak 2009ko apirilaren 2an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2009ko urtarrilaren 15eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua, Industria Ministerioa eta Red Eléctrica Española enpresa premiatzen dira lehentasuna eman diezaioten Estellerrian azpiestazio elektriko bat jartzeari.**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2009ko apirilaren 2an egindako bileran, erabaki zuen Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko ondoko mozioa erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua, Industria Ministerioa eta Red Eléctrica Española enpresa premiatzen dira lehen-

tasuna eman diezaioten Estellerrian azpiestazio elektriko bat jartzeari".

Mozio hori 2009ko otsailaren 4ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko aldaketak egin ditzan urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuan.**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2009ko apirilaren 2an egindako bileran, erabaki zuen Ion Erro Armendáriz jaunak aurkezturiko ondoko mozioa erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko aldaketak egin ditzan urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuan".

Mozio hori 2009ko otsailaren 4ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legezko ekintzak eta neurriak abian jar ditzan 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloan unibertsaltasuna, doakotasuna, kudeaketa eta Hezkuntza Departamentuaren finantzaketa bermatzeko.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legezko ekintzak eta neurriak abian jar ditzan 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloan unibertsaltasuna, doakotasuna, kudeaketa eta Hezkuntza Departamentuaren finantzaketa bermatzeko".

Legebiltzarrak 2009ko apirilaren 2an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko otsailaren 4ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



**F saila:**  
**GALDERAK**

**Galdera, “Udal jabetzapeko ikastetxeetako obrak” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

María Victoria Arraiza Zorzano andreak galdera egin du “Udal jabetzapeko ikastetxeetako obrak” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 20ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

37/2008 ebazpena, otsailaren 14koa, Ikuska-penaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak emana, Haur Hezkuntzako 2. zikloko ikastetxe

publikoak, Lehen Hezkuntzakoak (Lehen Hezkuntza-DBH) eta Udalen Musika Eskolak hobetzeko, zabaltzeko eta birmoldatzeko obra proiektuak egiteko Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuentzako laguntzak emateko deialdia onesten duena.

177/2008 ebazpena, ekainaren 4koa, Ikuska-penaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak emana, Haur Hezkuntzako ikastetxe publikoak, Lehen Hezkuntzakoak (Lehen Hezkuntza-DBH) eta Musika Eskolak hobetzeko, zabaltzeko eta moldatzeko obra proiektuak egiteko Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuentzako laguntzak emateko deialdia ebatzen duena.

Iruñean, 2008ko urriaren 3an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

UDALA	DIRULAGUNTZAREN XEDE DEN OBRA	ESKATU DU:	%	DIRULAGUNTZA
ABLITAS	Ikastetxe publikoko patioko eskuinaldeko itxiera-horma berriz jartzea.	35.920,27	65	23.348,18
ANTZIN	Ikastetxe publikoko kanpoko arotzeriak aldatzea.	30.059,27	65	19.538,53
ANTSOAIN	Ikastetxe publikoko 2. solairuan sabai aizunak jartzea, isolamenduarekin.	46.750,00	65	30.387,50
ARANTZA	Berokuntzarako eta ur berorako sistema egokitzea eta eskaierak eta patioa konpontzea.	1.550,00	65	1.007,50
ARANTZA	Ateak, leihoak eta kanpoko pertsianak aldatzea eta zorua lixatzea.	5.900,00	65	3.835,00
ARTAXOA	Ikastetxe publikoko sarbideetan arkitektura-oztopoak kentzea.	30.670,97	65	19.936,13
AZAGRA	DBHlan zenbait lan egitea.	12.120,90	80	9.696,72
AZAGRA	Fatxada pintatzea eta ateak berritzea.	5.000,00	80	4.000,00
AZAGRA	Pertsianak ordeztea	5.400,00	80	4.320,00
BARAÑAIN	3. faseko teilatuaren zati bat konpontzea.	128.866,08	65	83.762,95

UDALA	DIRULAGUNTZAREN XEDE DEN OBRA	ESKATU DU:	%	DIRULAGUNTZA
BASABURUA	Eskolako eraikinean igogailua jartzea eta erakina konpontzea.	96.023,58	65	62.415,33
BAZTAN	Arizkungo ikastetxe publikoko teilatupeko solairua berritzea (2. fasea)	14.954,86	65	9.720,66
BAZTAN	Elizondok San Fco. Javier IPko psikomotrizitate gela berritzea.	51.300,00	65	33.345,00
BAZTAN	Elizondoko San Fco. Javier IPko kanpoko zurajea berritzea.	51.000,00	65	33.150,00
BAZTAN	Elizondoko San Fco. Javier IPko eskola-barrutiaren itxitura aldatzea.	88.745,04	65	57.684,28
BAZTAN	Elizondoko San Fco. Javier IPko jantokietako teilatua berritzea.	21.432,26	65	13.930,97
BAZTAN	Elizondoko San Fco. Javier IPko irisgarritasun eta segurtasun lanetarako segurtasun eta osasun gastuak.	1.941,43	65	1.261,93
BAZTAN	Erratzuko IPko teilatua zaharberitzea eta fatxadak konpontzea.	121.092,65	65	78.710,22
BAZTAN	Oronzko IPa handitzea eta berritzea.	132.369,60	65	86.040,24
BEIRE	Teilatua zaharberitzea, kanpoko zurajeak aldatzea eta berokuntza sistema jartzea.	42.637,04	65	27.714,08
BERA	Fatxadak zaharberitzea	43.059,20	65	27.988,48
BERA	Teilatuak zaharberitzea	211.688,45	65	137.597,49
BERA	Sotoan berritze-lanak egitea	64.185,12	65	41.720,33
BERIAIN	Sotoko aldagelak berritu eta egokitzea	3.017,74	65	1.961,53
BERIAIN	Ebakuazio atea behar den norabidean jartzea	7.464,60	65	4.851,99
BERIAIN	Saneamenduko sare horizontala aldatzea	89.045,66	65	57.879,68
BERIAIN	Isolamendurako kontraleihoak	57.878,20	65	37.620,83
BERRIOZAR	Haur hezkuntzako ikasgeletan leihoak aldatzea.	50.772,04	65	33.001,83
BERRIOZAR	Ikastetxe publikoan ebakuazio atea berritzea	36.637,95	65	23.814,67
BERTIZARANA	Legasako IPko berokuntza sistema aldatzea eta berrikustea	12.760,00	65	8.294,00
BERTIZARANA	Narbarteko IPko teilatua eta fatxada konpontzea eta ikasgela batean kortxoak jartzea	16.808,40	65	10.925,46
BETELU	Eskailera luzatzea, teilatupeko solairua egokitzea, minusbaliatuentzako komuna, jantokiko toldoa	57.636,27	65	37.463,58
BUÑUEL	Korridoreetako leihoak eta komunetako atea aldatzea	62.063,77	65	40.341,45
CABANILLAS	Komunak berritzea, ikasgeletako argiteria jartzea eta berokuntza sistema jartzea	77.302,16	65	50.246,40
CÁRCAR	Haur hezkuntzako ikasgela egokitzea	18.741,04	65	12.181,68
CÁRCAR	IPko arauetara egokitzea	93.599,45	65	60.839,64
CORELLA	Ikastetxe publikoan igogailua jartzea	26.392,29	65	17.154,99
DONEZTEBE	Ikastetxeko kanpoko itxitura berritzea, ordainsaririk gabe	36.830,00	65	23.939,50
ESTERIBAR	Zubiriko IPko psikomotrizitaterako gelako zoruan konponketak egitea	1.664,60	65	1.081,99
ESTERIBAR	Zubiriko IPko instalazio elektrikoak berritzea	41.859,01	65	27.208,36
ETXALAR	Eskola zabaltzeko lanak (3. fasea)	208.068,07	50	104.034,04
ETXALAR	Eskola zabaltzeko lanak (2. fasea)	108.964,32	50	54.482,16
FALTZES	Larrialdietarako argiteria eta errotulu fotoluminiszentek jartzea.	1.592,10	65	1.034,87
FALTZES	Ikastetxe publikoko lehenengo solairuan berokuntza paratzea.	36.135,30	65	23.487,95
FALTZES	Ikastetxe publikoan 25 komun aldatzea.	9.280,00	65	6.032,00
FITERO	Kiroldegiko korridoreak konpontzea. 2. fasea.	151.715,18	65	98.614,87
GARRALDA	Behe tentsioko instalazio elektrikoak.	69.509,89	80	55.607,91
GARRALDA	DBHko kanpoko arotzeria aldatzea.	89.258,80	80	71.407,04
GOIZUETA	Ikastetxe publikoan oztopoak kentzea eta igogailua.	68.034,00	65	44.222,10

UDALA	DIRULAGUNTZAREN XEDE DEN OBRA	ESKATU DU:	%	DIRULAGUNTZA
GOIZUETA	Kanpoko arotzeria eta sarrerako atea aldatzea (1. fasea).	87.112,33	65	56.623,01
UHARTE	Ikastetxe publikoko 2. solairua egokitzeko lanak.	71.298,80	65	46.344,22
IRURTZUN	Ikastetxe publikoko kanpoko arotzeria aldatzea (1. fasea).	76.669,67	80	61.335,74
IRURTZUN	Teilatupeko espazioak egokitzea.	8.247,60	65	5.360,94
LAKUNTZA	Igogailua jartzea, oztupoak kentzea eta ikastetxe publikoa zabaltzea (1. fasea).	127.160,16	65	82.654,10
LARRAGA	Ikastetxe publikoa zaharberritzea eta zabaltzea (igogailua eta haren eragin esparrua).	134.278,84	65	87.281,25
LEITZA	Gas galdara berria jartzea.	110.722,00	80	88.577,60
LESAKA	Ikastetxe publikoko teilatuaren erreforma (2. fasea).	275.989,43	65	179.393,13
LODOSA	Ikastetxe publikoko ipar-ekialdeko kanpoko arotzeria aldatzea	96.246,10	65	62.559,97
LOS ARCOS	Ikastetxe publikoan oztupoak kentzea.	103.487,35	65	67.266,78
LOS ARCOS	Ikastetxe publikoan suteen aurkako neurriak jartzea.	58.510,57	65	38.031,87
MARTZILLA	Ikastetxe publikoko leihoak aldatzea	67.970,84	65	44.181,05
MENDIGORRIA	Zenbait lan: ikasgelako zorua aldatzea, komun batean berogailua jartzea eta hegaztiak pausatzearen aurkako sistema	6.283,74	65	4.084,43
MURCHANTE	Ikasgela berriak terrazan.	10.195,02	65	6.626,76
MURCHANTE	Ikasgela berria beheko solairuan	3.777,88	65	2.455,62
MURIETA	Komun bat, biltegi bat, bulego bat, kanpoko aisia-eremua eta sarrerako markesina egokitzea.	26.894,00	65	17.481,10
MURILLO EL CUENDE	Kanpoko eta barneko arotzeria ordeztzea	77.416,24	65	50.320,56
MURILLO EL CUENDE	Arradako ikastetxe publikoko teilatua aldatzea	163.970,99	65	106.581,14
MURILLO EL FRUTO	Ikastetxe publikoko teilatua zaharberritzea	128.601,81	65	83.591,18
NOAIN-ELORTZIBAR	Institutuan igogailua paratzea	58.923,36	80	47.138,69
OLAZTI	Ikastetxe publikoko kanpoko arotzeria aldatzea.	104.480,48	65	67.912,31
OLAZTI	Ikastetxe publikoko haurrentzako komunak egokitzea.	8.964,03	65	5.826,62
IRUÑA	García Galdeano ikastetxe publikoan igogailua paratzea	121.452,16	65	78.943,90
IRUÑA	"San Jorge-I" ikastetxeko haur hezkuntzako eraikinean igogailua jartzea.	91.799,37	65	59.669,59
RIBAFORADA	Ikastetxe publikoaren 1. fasean kanpoko arotzeria ordeztzea	80.512,96	65	52.333,42
ERRONKARI	Suteen aurkako segurtasuneko erreformak eta lan osagarriak	70.894,56	80	56.715,65
ERRONKARI	Instalazioen erreforma partziala.	47.724,12	80	38.179,30
TUTERA	Patioko zorua konpontzea, eta sartzeko arrapalak egitea (Elvira España ikastetxe publikoa).	166.783,00	65	108.408,95
UXUE	Uxueko ikastetxe publikoko kanpoko arotzeria eta barneko atea ordeztzea.	32.599,87	65	21.189,92
ULTZAMA	Ikastetxe publikoan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutuan suteei buruzko arauak betetzeko lanak egitea eta oztupoak kentzea.	49.732,89	65	32.326,38
VIANA	Ikastetxe publikoan zenbait beira eta persiana ordeztzea.	75.089,90	65	48.808,44
VILLATUERTA	Areto nagusian tabikeak egitea, bi ikasgela egiteko.	7.037,01	65	4.574,06
ATARRABIA	Atargi ikastetxe publikoan igogailua jartzea.	105.088,09	65	68.307,26
		<b>GUZTIRA</b>		<b>3.499.926,98</b>

## **Galdera, “0tik 3 urtera bitarteko haurrak eskolatzeko udalekin izenpeturiko hitzarmenak” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

María Victoria Arraiza Zorzano andreak galdera egin du “0tik 3 urtera bitarteko haurrak eskolatzeko udalekin izenpeturiko hitzarmenak” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 20ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Ikuskapen eta Zerbitzuen zuzendari nagusiaren uztailaren 1eko 91/2008 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko toki entitateei dirulaguntzak emateko deialdia onetsi zen 0tik 3 urtera bitarteko haur-hezkuntzako ikastetxe publikoak eraikitzeko, 8.000.000 euroko gehienezko zenbatekoa ezarrita.

Deialdi hori 2008ko apirilaren 14an argitaratu zen NAOren 47. zenbakian, eta 2008ko maiatza-

ren 14a ezarri zen eskariak aurkezteko azken egun gisa.

Ikuskapen eta Zerbitzuen zuzendari nagusiaren uztailaren 4ko 252/2008 Ebazpenak apirilaren 1eko 91/2008 Ebazpena aldatzen du; horrek, era berean, Nafarroako Foru Komunitateko toki entitateei 0tik 3 urtera bitarteko haur-hezkuntzako ikastetxeak eraikitzeko dirulaguntzak emateko deialdia onesten du.

Ikuskapen eta Zerbitzuen zuzendari nagusiaren abuztuaren 25eko 339/2008 Ebazpenak, bate-tik, Nafarroako Foru Komunitateko toki entitateei 0tik 3 urtera bitarteko haur-hezkuntzako ikastetxeak eraikitzeko dirulaguntzen deialdia ebatzen du. Bestetik, aurrez dauden ikastetxeak martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretura egokitzea ebatzen du; azken hori apirilaren 1eko 91/2008 Ebazpenaren bidez eta uztailaren 4ko 252/2008 Ebazpenaren bidez onetsi zen, bi-biak Ikuskapen eta Zerbitzuen zuzendari nagusiarenak.

Iruñean, 2008ko urriaren 3an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

<b>1. LANAK 2007an HASI ZITUZTEN toki entitateak (dirulaguntza 2007an onartu zen, esleitutako zenbatekoaren % 50 baino gehiago exekutatzegatik edo LANAK HASTEAGATIK)</b>	<b>2008an ONARTUTAKO DIRULAGUNTZA</b>
<b>2008 (guztiaren % 50)</b>	<b>2008 (guztiaren % 50)</b>
BAZTAN	324.992,84
NOAIN (ELORTZIBAR)	324.992,84
<b>2008 (guztiaren % 75)</b>	<b>2008 (guztiaren % 75)</b>
ANDOSILLA	487.489,27
ZIZUR TXIKIA ZENDEA	487.489,27
MILAGRO	609.195,37
TUTERA ( LOURDESKO AMA BIRJIÑA)	386.323,63
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.620.483,22</b>

2. Aurkezteko epea amaituta LANAK HASI DITUZTEN toki entitateak.	2008an ONARTUTAKO DIRULAGUNTZA
2008 (% 100)	2008 (% 100)
VILLAFRANCA	152.565,87
2008 (% 75)	2008 (% 75)
VIANA	609.195,37
GUZTIRA	761.761,24

3. Aurkezteko epea amaituta PROIEKTUA IDATZIA (edo, nahikoa bada, balioetsitako oroitidazkia) DUTEN eta LANAK 2008an HASTEAN aurreikusten duten toki entitateak.	2008an ONARTUTAKO DIRULAGUNTZA
3.1 - ERAIKUNTZA, HANDITZE EDO BERRIKUNTZA lanak	
2008 (% 100)	2008 (% 100)
CABANILLAS	74.044,88
LEKUNBERRI	302.319,20
LOS ARCOS	228.163,32
DONEZTEBE	174.415,28

3. Aurkezteko epea amaituta PROIEKTUA IDATZIA (edo, nahikoa bada, balioetsitako oroitidazkia) DUTEN eta LANAK 2008an HASTEAN aurreikusten duten toki entitateak.	2008an ONARTUTAKO DIRULAGUNTZA
3.1 - ERAIKUNTZA, HANDITZE EDO BERRIKUNTZA lanak	
2008 (% 75)	2008 (% 75)
FUSTIÑANA	487.489,27
2008 (% 25)	2008 (% 25)
ALTSASU	203.065,12
FITERO	115.318,24
ITZA	162.496,42
MENDIGORRIA	345.954,71
2008 (% 15)	2008 (% 15)
BURLATA	165.217,37
3.2 - Martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretura EGOKITZEKO lanak.	
2008 (% 100)	2008 (% 100)
AGOITZ	20.722,51
BUÑUEL	4.735,12
CORTES	37.515,09
AZKOIEN	79.416,18
RIBAFORADA	55.383,90
GUZTIRA	2.456.256,61
	2.008
GUZTIRA	5.838.501,07

<b>4. PROIEKTURIK IZAN GABE (baina aurreproiektua, oinarrizko proiektua edo betetze-aurreikuspena izanik) LANAK 2008an HASTEAN aurreikusten duten toki entitateak</b>	<b>DIRULAGUNTZA</b>
<b>4.1- ERAIKUNTZA, HANDITZE EDO BERRIKUNTZA lanak</b>	
<b>2008 (% 100)</b>	<b>2008 (% 100)</b>
BETELU	32.336,99
ULTZAMA	74.044,88
<b>2008 (% 75)</b>	<b>2008 (% 75)</b>
CINTRUÉNIGO	345.954,71
LAKUNTZA ETA ARBIZU	487.489,27
<b>2008 (% 25)</b>	<b>2008 (% 25)</b>
AZAGRA	203.065,12
BERA	18.511,22
BERRIOZAR 1	203.065,12
EZKAROZE	91.061,07
LERÍN	38.935,36
OTEITZA	91.812,92
GARES	203.065,12
ERRONKARI	134.188,11
SAN ADRIÁN	239.718,67
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.163.248,54</b>

## **Galdera, mendekotasun egoeraren aitortenari eta Nafarroako Mendekotasun Agentziako ebaluatzaileei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du mendekotasun egoeraren aitortenari eta Nafarroako Mendekotasun Agentziako ebaluatzaileei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du mendekotasun-egoera aitortzeari dagozkion hainbat auziri eta Nafarroako Mendekotasun Agentziako ebaluatzaileei buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Figueras andreak hainbat galdera egin ditu mendekotasun-egoera baloratzeari nahiz balorazio hori gauzatzeaz arduratzen den talde profesionalari buruz.

Lehenik eta behin, mendekotasun-egoeraren balorazioari buruz eskatutako informazioari dagozkionez, Nafarroako Mendekotasun Agentziak departamentu honetara helarazitako datuak idatzi honekin batera doazen eranskinetan jaso dira.

Beste alde batetik, zera esan behar dugu balorazio horiek egiteaz arduratzen den talde profesionalari buruz:

Gaur egun, mendekotasun-egoera baloratzeari arduratzen den taldea honako hauek osatzen dute:

- Errehabilitazioko sendagile 1
- Psikologo 1
- 9 okupazio-terapeuta
- Erizaintzako UD 1 eta fisioterapiako UD 1
- 2 gizarte-langile
- 5 administrari laguntzaile.

Horrez gain, aipatutako pertsonak osatzen duten taldea gainbegiratzeaz hauek arduratzen dira: Balorazio atalburua, sendagilea (alderdi teknikoetan) eta Administrazio Koordinazioaren Bulegoko burua (administrazio-prozedurei dagokionez).

Profil profesional horri dagokionez, gainerako autonomia-erkidegoetan talde horiek jarraitu dituzten irizpide orokor berak jarraitu dira, osasun- eta gizarte-arloko profesionalak izaki (sendagilea, psikologoa, okupazio-terapeuta, erizaintza, fisioterapia).

Aipatutako taldea, bestalde, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bertako organismo autonomoen plantillaren barnean dago, eta, beraz, irizpide objektiboak erabiliz hautatu da. Horretarako, hautaketa-probak egin dira, gure Konstituzioan enplegu publikoa eskuratzeko ezartzen diren merezimendu- eta gaitasun-printzipioei jarraiki.

Talde horren balorazio-lana apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako baremoaren aplikazioan oinarritzen da. Hau da, balorazio-tresna berria da, ordura arte erabili gabea, eta, jakina, titulazioek orain arte ikasketan planetan barne hartu ez dutena.

Horregatik, Familia, Gazteria, Kirola eta Gizarte Gaietako Departamentuak ahalegin berezia egin du profesional horien prestakuntzan; horretarako, haiei zuzendutako jardunaldi eta ikastaroak antolatu dira, hala nola:

– Mendekotasun-egoerak balioesten prestatzeko hastapen-ikastaroa, 2007ko urtarrilean ANDE-Peko (Nafarroako Mendekotasun Agentzia) lokalean egin: 9 ordu teoriko eta 18 ordu praktiko.

– Mendekotasun-egoera balioesteko baremoari buruzko prestakuntza-ikastaroa. 2007ko maiatza. 10 ordu.

– Arkitektura-oztopoak kentzeari, etxebizitzak egokitzeari eta laguntza-produktuei buruzko prestakuntza-ikastaroa, Madrilgo CEAPATen. 2007ko urriaren 25 eta 26an. 14 orduko iraupena.

– MBBri (mendekotasuna baloratzeko baremoari) buruzko eguneratze-jardunaldia, INA-Pen:2008ko urtarrilaren 24an.

– Gor-mutuen mendekotasuna baloratzeko jardunaldia. ONCEn egina, 2008ko apirilaren 18an. 5 orduko iraupena.

– Hartutako kalte zerebrala duten pertsonen mendekotasuna baloratzeko jardunaldia. ADACE-Nen egina, 2008ko irailaren 12an. 5 orduko iraupena.

Ikastaro eta jardunaldi horiez gain, lan-jardunaldiak burutu dira Pertsona Ezinduek Baloratzeko Taldearekin batera, eta ostiralero, 8etatik 10etara, koordinazio-bilera bat egiten da taldeko kideen artean, honako hauek jorratzeko: kontsultak egin, zalantzak ebatzi, irizpideak batu, kasu berezi eta adierazgarriak azaldu, mendekotasuna baloratzeko baremoa (MBB) hobetzeko eta aldatzeko proposamenak egin.

Bestalde, Nafarroako balorazio-taldeko profesionalak balorazioarekin zerikusia duten foro ofizial garrantzitsuetan parte hartzen dute: mendekotasun-egoera baloratzeko baremoaren (MBB) aplikazioaren Koordinazio eta Jarraipen Batzorde Teknikoa, eta Mendekotasuna Balioesteko Baremoaren Lantaldea. Aipatutako profesionalen partaidetza funtsezkoa izan da. Hori argi eta garbi geratu da lantalde horretara igorri diren agiri eta idatzietan, eta halaxe aitortu dute gai honetako IMSERSOko koordinatzaileek ere.

Baloratzailen espezializazioari dagokionez, momentuz, medikuntzako edota psikologiako profesional batek egiten du 18 urtez azpikoen balorazioa. 18 urtetik aurrera, balorazioa espedientean agertzen diren datuen arabera egiten da. Hala, esate baterako, adimen-urritasuna edota buru-eritasuna duten pertsonen dagokionez, psikologiako profesionalak edo adimen-urritasunean eta buru-eritasunean esperientzia handia duten okupazioterapeuta profesionalak egiten dute balorazioa lehenetsunez.

Gaur egun, Osasun Departamentuko ardura-dunekin elkarrizketetan ari dira, mendekotasuna baloratzeko eskaeran beharrezkoa den medikuntxostenean pertsonaren osasun-egoera zehaztasun handiagoz jaso dadin eta, hala, balorazioa zehaztasun handiagoz egin ahal izan dezaten jarraian aipatzen diren kolektiboetan espezializatutako pertsonak: muineko lesioak, neuroendokapenezko gaixotasunak, itsutasun eta gor-mututasunak eta abar.

Apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuan argitaratutako mendekotasuna baloratzeko bare-

moa (MBB) aplikatzeko irizpideei dagokienez, esan behar da balorazioa MBBn prestakuntza egokia duen profesional kualifikatu batek egiten duela, galdetegi batean eta pertsonaren behaketa zuzenean oinarrituta.

Ildo horretatik, honako hauek hartu behar dira kontuan:

a) Balorazioa hainbat item jasotzen dituen galdetegi baten aplikazioan oinarritzen da. Item horiek dira kontuan har daitezkeen bakarrak, pertsonaren egoera zehatza gorabehera. Horrek guztiak sistemaren prestazioak herritar guztiak berdintasunez jasotzea du helburu.

b) Mendekotasunaren balorazioaren helburua egoera guztien balorazioa egitea da, modu horretan, zerbitzu hori herritar guztiak berdintasunez jaso dezaten. Horretarako, une honetan bi baremo daude: adimen-urritasuna eta buru-eritasuna duten pertsonentzako Baremo Orokorra eta Baremo Zehatza.

c) Baloratzen den pertsonaren behaketa zuzenean oinarritzen da balorazioa. Pertsona bere ohiko ingurunean baloratzen da; sekula ez txosten bidez. Adimen-urritasuna edo buru-eritasuna duten pertsonen dagokionez, edo pertzepzio- eta kognizio-gaitasunean alterazioen bat duten pertsonen dagokionez, eskatzailearen egoera behar bezala ezagutzen duen pertsona batek parte hartuko du balorazioan; normalean familiarakoren bat edo zain-tzailearen bat izaten da pertsona hori.

d) Aurrez aipatu bezala, MBBn prestakuntza egokia duen kualifikatutako profesional batek egiten du balorazioa.

Azkenik, itxarote-denborari dagokionez, gaur egun, balorazioa eskatzen denetik balorazioa egiten den arte 3 hilabete baino gutxiago igarotzen direla azpimarratu behar da. Dena den, hainbat egoeratan berehala esku hartzea ezinbestekoa da, eta horretarako prozedura berezi bati jarraitzen zaio (ospitaleko alta jasota egoitzan ingresatzea, egoera sozial eta familiar larriak eta abar.)

Iruñean, 2008ko urriaren 2an.

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-08/PES-00233 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>



## **Galdera, jakiteko zergatik dagoen Nafarroa azken tokian mendekotasuna duten pertsonen balorazio kopuruari dagokionez.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du jakiteko zergatik dagoen Nafarroa azken tokian mendekotasuna duten pertsonen balorazio kopuruari dagokionez.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du, mendekotasun-egoera dutenen balorazio-kopuruari dagokionez, Nafarroa azken postuetan egotearen arrazoiei buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Ezeolaza jaunak galdera egin du Nafarroa mendekotasun-egoera dutenen balorazioari dagokionez azken postuetan egotearen arrazoiei buruz.

Horri buruz, baieztapen hori errealitatearekin bat ez datorrela adierazi behar da, besterik gabe. Aitzitik, Nafarroa, biztanleriarekiko proportzioa kontuan hartuta, pertsona gehien baloratu dituen erkidegoa da.

Baieztapen hori hainbat hedabidek emandako informazioan oinarritzen dela uste dugu; aldi berean, informazio hori IMSERSOko web-orrialdean

agertzen den informazio estatistikoan oinarritzen da.

Gaur-gaurkoz Mendekotasunaren Lurralde Kontseiluak ez du informazio hori baliozkotu, eta autonomia-erkidegoetako informazioa IMSERSOko aplikazio informatikora irauli behar da. Sistema hori berriki ezarri da eta oraindik ez du behar bezalako funtzionamendua; horregatik, oraindik ezin da mendekotasunaren aplikazioari buruzko informazio errealik atera bertatik.

Sistema horren funtzionamendua dela eta, autonomia-erkidego ugari kexu azaldu dira.

Aipatutako datu horiek are zehaztugabeagoak dira IMSERSOren erabili beharrean beren aplikazio propioa erabiltzen duten autonomia-erkidegoetan (7 guztira). Aplikazio horietara web services bidez helarazten da informazioa. Informazioaren transmisio-bide hori are konplexuagoa da, eta IMSERSOren aplikazioaren enpresa esleipenduna ari da hura aldatzen.

Departamentu hau informaziorako eta estatistikarako irizpide komunak ezartzearen beharraz jabetzen da, eta kontseilari honek gaiaren gaineko eskumena duen ministroari aurrez aurre halaxe adierazteko aukera izan zuen.

Edonola ere, horri buruz Nafarroako Mendekotasun Agentziak (Nafarroako Foru Komunitatean gaian eskumena duena bera) eman dezakeen informazio erreala eranskin modura atxikitzen den informazio-taula honetan dator.

Iruñean, 2008ko urriaren 3an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

2008/08/31

**GUTXIENKO INFORMAZIO ESTATISTIKOA****EBAZPENAK: MENDEKOTASUN-EGOERA AITORTUTA**

	<b>DEIAK</b>
ESKARIAK (3)	18156
EGINDAKO BALORAZIOAK	17232
EBAZPENAK, GRADUA ETA MAILA	14940
EBAZPEN-KOPURUA, III. GRADUA. 1. MAILA	1901
EBAZPEN-KOPURUA, III. GRADUA. 2. MAILA	3472
EBAZPEN-KOPURUA, II. GRADUA. 1. MAILA	2452
EBAZPEN-KOPURUA, II. GRADUA. 2. MAILA	1944
EBAZPEN-KOPURUA, I. GRADUA. 1. MAILA	1844
EBAZPEN-KOPURUA, I. GRADUA. 2. MAILA	1603
GRADURIK GABEKO EBAZPENEN KOPURUA	1724

## **Galdera, lupus gaixotasuna diagnostikatuta duten pertsonen kopuruari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du lupus gaixotasuna diagnostikatuta duten pertsonen kopuruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 19ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du lupusa diagnostikatu zaien pertsonen kopuruari buruz (PES-267/08). Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Hauek dira Nafarroan diagnostikatutako kasuen kopurua eta gaur egun lupusaren aldaeraren bat duten gaixoen kopurua:

Eritema-lupus sistemikoa:

- 285 kasu diagnostikatu dira.
- Gaur egun 226 gaixo ditugu.

Eritema-lupus diskoidea:

- 52 kasu diagnostikatu dira.
- Gaur egun 41 gaixo ditugu.

2.- Gure datu-baseko datuen arabera, hauek dira Nafarroako osasun-zentroetan eritema-lupusaren aldaeraren batekin erregistratutako diagnostikoak:

Eritema-lupus sistemikoa (diseminatua)

- 2005. 10 kasu diagnostikatu ziren
- 2006. 16 kasu diagnostikatu ziren
- 2007. 14 kasu diagnostikatu ziren
- 2008. 8 kasu diagnostikatu dira.

Eritema-lupus diskoidea

- 2005. Ez zen kasurik diagnostikatu
- 2006. Kasu 1 diagnostikatu da
- 2007. Kasu 1 diagnostikatu da.
- 2008. 2 kasu diagnostikatu dira.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely



